Kontuan hartu behar da, baita ere, Gipuzkoako Aldundiko Gobernu Taldearen jarrera. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana berreskuratu nahi du – aurreko foru arduradunek gaitzesten zuten–. Plan horren arabera, tratamendu planta batzuk egingo dira, probintziako udalerrietan biltzen diren hondakinak kudeatzeko. Planta horietakoren bat Donostiako udalerrian jarriko da; horren adibide, Zubieta Gainean jarri nahi den balorazio energetikoko planta.

Argi dago gure gizartearen garapenak, herritarren ohiturek eta jarri nahi diren tratamendu plantek osatzen duten agertokiak gogoeta eginarazi behar digu gai ugariz, hala nola: erabilgarri dauden azpiegituren gaur egungo egoera; gure udalerririk bilketa arloan dituen eskumenak, eta hobariak ematea hondakinen berreskurapenarekin, haien aprobetxamenduarekin, sostengagarritasunarekin eta ingurumenarekin kontzientziatua dauden erabiltzaileei.

Horiek horrela, Talde Popularrak honako PROPOSAMENA aurkezten du, hurrengo Udalbatzan azter dadin:

- Batzorde Ez Iraunkor bat eratzea, gure udalerriko hiri hondakinen bilketa sistema

los usuarios pagamos. Este mismo mes de octubre se ha aprobado un incremento del 1,5% en el recibo de la tasa que los ciudadanos vamos a pagar por la recogida de residuos. Sin embargo, el déficit del servicio sigue creciendo, y ya alcanza los 5 millones de euros.

Otro aspecto clave a contemplar es la posición del actual Equipo de Gobierno de la Diputación de Gipuzkoa, que tiene intención de recuperar el Plan de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa -denostado por los anteriores responsables forales-, y que contempla la creación de una serie de plantas de tratamiento para gestionar los residuos que se recogen en los municipios de la provincia. Alguna de esas plantas va a instalarse en el municipio de San Sebastián, como es el caso de la planta de valorización energética prevista en los altos de Zubieta.

Es evidente que el desarrollo de nuestra sociedad, los hábitos de los ciudadanos, y la proyectada puesta en funcionamiento de diversas plantas de tratamiento conforman un escenario en el que es preciso reflexionar sobre el estado actual en relación a las infraestructuras disponibles, las competencias en materia de recogida que tiene nuestro municipio, y la implementación de medidas de bonificación para aquellos usuarios más concienciados con la recuperación de residuos y su aprovechamiento, con la sostenibilidad, o el medio ambiente.

Por todo lo expuesto, el Grupo Popular presenta la siguiente PROPOSICIÓN para ser tratada en el próximo Pleno:

- Constituir una Comisión No Permanente con el objetivo de estudiar y analizar el sistema de

aztertzeko. Aztertu beharreko gaien artean sartuko dira, besteak beste, sistemaren arrazionalizatzea bera eta zerbitzuaren beste ezaugarri batzuk, hala nola, erabiltzaileok ordaintzen dugun prezioa eta kasu batzuetan ezar daitezkeen hobariak. Hori guztia kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiak legealdi honetan abian jarri nahi dituela hondakinak tratatzeko planta batzuk, bai eta planta horiek Donostian izango duten eragina ere.

- Osaera: kide bat udal talde politiko bakoitzeko, boto haztatua emateko eskubidearekin

- Iraupena: 9 hilabete

- Bilera araubidea: hilean behin, gutxienez.

Donostia, 2015eko azaroaren 4a

José María Murguiondo Casal,
Talde Popularreko zinegotzia”.

recogida de residuos urbanos en nuestro municipio, su racionalización, y otras características propias del servicio como, por ejemplo, el precio que los usuarios pagamos por el mismo o las posibles bonificaciones a implementar en determinados supuestos. Todo ello con la vista puesta en la entrada en funcionamiento de diversas plantas de tratamiento de residuos previstas para esta legislatura por la Diputación Foral de Gipuzkoa, y su incidencia en Donostia- San Sebastián.

- Composición: un miembro por cada Grupo político Municipal, con derecho a voto ponderado

- Duración: 9 meses.

- Régimen de reuniones: se celebrará, al menos, una con carácter mensual.

En Donostia-San Sebastián, a 4 de Noviembre de 2015

José María Murguiondo Casal
Concejal Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, D. Alfonso Gurpegui Ruiz, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 1 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP.

EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 2 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP.

EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 3 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ-PNV, (7)

**PSE-EE, (5) EH BILDU, (2) IRABAZI
DONOSTIA.**

ABSTENTZIOAK: 3 - PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 22 – (8) EAJ-PNV, (7)

**PSE-EE, (5) EH BILDU, (2) IRABAZI
DONOSTIA.**

ABSTENCIONES: 3 - PP.

9. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO Nº 9:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 20 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 20 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.

ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN
BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO
DEL ACUERDO ADOPTADO**

Udalbatzak, bi mila eta hamabosteko azaroaren hogeita lauan izan zuen bilera ohikoan, Donostiako hiri hondakinei buruzko batzorde ez-iraunkor bat sortzeko proposamena onartu zuen, EH BILDU taldeak erabaki zatiari beste paragrafo bat eransteke egin zuen zuzenketa eskea ere erantsita duena. Horrenbestez, honela gelditu zen onartutako testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticuatro de noviembre de dos mil quince, aprobó una Proposición para la Creación de una Comisión No Permanente sobre Residuos Urbanos en Donostia – San Sebastián, que incorpora una enmienda aprobada presentada por el Grupo EH BILDU de adición de un párrafo a la parte dispositiva quedando el texto de la siguiente manera:

“Udalbatzaren Organo Araudiak 148. artikuluan ezartzen duenez, posible izango da, besteak beste, udal talde batek hala eskatuta eta Udalbatzak aurrez onartu eta gero, gai jakin bat tratatzeko batzorde ez iraunkorrak eratzea, gaia aztertu, proposamenak egin eta antzeko helburuak izango dituztela. Ez dute, baina, erabakitzeke ahalmenik izango.

“El vigente Reglamento Orgánico de Pleno, en su artículo 148, establece que se podrá, entre otros supuestos, a instancia de un Grupo Municipal y previo acuerdo de Pleno, constituir Comisiones No Permanentes para un asunto concreto, con fines de estudio, elaboración de propuestas u otros de naturaleza análoga, sin carácter resolutorio.

Donostiako Udalaren lehentasunetako bat hondakinen sorreraren prebentzioa da, bai eta haien kudeaketa hobetzea ere. Hala islatzen da honako plan hauetan: Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planetan, Klima Aldaketaren Aurkako Planean eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean. Plan horietan guztietan prebentziorako neurriak eta hondakinen kudeaketa hobetzeko neurriak ezartzen dira, hondakinen balorizazio materiala maximizatzen saiatuta, baliabideak diren neurrian.

El Ayuntamiento de San Sebastián tiene entre sus prioridades la prevención en materia de generación de residuos y la mejora de su gestión, hecho que se refleja en los Planes de Acción de la Agenda Local 21, así como en el Plan de Lucha Contra el Cambio Climático y en el Plan de Acción de Energía Sostenible. En todos estos planes se establecen medidas para la prevención y también para la mejora de la gestión de los residuos tratando de maximizar su valorización material, en su condición de recursos.

Hondakinak Biltzeko Udal Ordenantzaren xedea da Donostian hiri hondakinen erregimen juridikoa arautzeko tresna izatea, bide publikoen higiene baldintzei, garbitasunari,

La Ordenanza Municipal de Recogida de Residuos es el instrumento por el que se regula el régimen jurídico de los residuos urbanos en la ciudad de San Sebastián, con

txukuntasunari eta apaingarri publikoei eusteko, edukiontzien bolumenari arrazoizko aprobetxamendua emateko, ingurumena babesteko eta hondakinak modu egokian kudeatzeko, elementu jakin batzuk gaika bilduz eta birziklatuz.

Bestalde, Donostiako Udalak urtero igotzen du erabiltzaileok ordaintzen dugun zabor tasaren ordainagiria. Aurtengo urrian bertan, herritarrok hondakinen bilketagatik ordainduko dugun tasaren ordainagiria %1'5 igotzea onartu da. Hala eta guztiz ere, zerbitzuaren defizita gero eta handiagoa da, gaur egun 5 milioi eurokoa izanik.

Kontuan hartu behar da, baita ere, Gipuzkoako Aldundiko Gobernu Taldearen jarrera. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana berreskuratu nahi du –aurreko foru arduradunek gaitzesten zuten–. Plan horren arabera, tratamendu planta batzuk egingo dira, probintziako udalerrietan biltzen diren hondakinak kudeatzeko. Planta horietakoren bat Donostiako udalerrian jarriko da; horren adibide, Zubieta Gainean jarri nahi den balorazio energetikoko planta.

Argi dago gure gizartearen garapenak, herritarren ohiturek eta jarri nahi diren tratamendu plantek osatzen duten agertokiak gogoeta eginarazi behar digu gai ugari, hala nola: erabilgarri dauden azpiegituren gaur egungo egoera; gure udalerriak bilketa arloan dituen eskumenak, eta hobariak ematea hondakinen berreskurapenarekin, haien aprobetxamenduarekin, sostengagarritasunarekin eta ingurumenarekin kontzientziatua dauden erabiltzaileei.

Horiek horrela, Talde Popularrak honako PROPOSAMENA aurkezten du, hurrengo Udalbatzan azter dadin:

el objetivo de lograr la preservación de las condiciones higiénicas, de limpieza, pulcritud y ornato público de la vía pública, el aprovechamiento racional del volumen de los contenedores, así como la protección del medio ambiente y una adecuada gestión de los residuos, favoreciendo para ello la recogida selectiva de determinados elementos para su reciclaje.

Cada año el Ayuntamiento de San Sebastián incrementa el recibo de la tasa de basuras que los usuarios pagamos. Este mismo mes de octubre se ha aprobado un incremento del 1,5% en el recibo de la tasa que los ciudadanos vamos a pagar por la recogida de residuos. Sin embargo, el déficit del servicio sigue creciendo, y ya alcanza los 5 millones de euros.

Otro aspecto clave a contemplar es la posición del actual Equipo de Gobierno de la Diputación de Gipuzkoa, que tiene intención de recuperar el Plan de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa -denostado por los anteriores responsables forales-, y que contempla la creación de una serie de plantas de tratamiento para gestionar los residuos que se recogen en los municipios de la provincia. Alguna de esas plantas va a instalarse en el municipio de San Sebastián, como es el caso de la planta de valorización energética prevista en los altos de Zubieta.

Es evidente que el desarrollo de nuestra sociedad, los hábitos de los ciudadanos, y la proyectada puesta en funcionamiento de diversas plantas de tratamiento conforman un escenario en el que es preciso reflexionar sobre el estado actual en relación a las infraestructuras disponibles, las competencias en materia de recogida que tiene nuestro municipio, y la implementación de medidas de bonificación para aquellos usuarios más concienciados con la recuperación de residuos y su aprovechamiento, con la sostenibilidad, o el medio ambiente.

Por todo lo expuesto, el Grupo Popular presenta la siguiente PROPOSICIÓN para ser tratada en el próximo Pleno:

- Batzorde Ez Iraunkor bat eratzea, gure udalerriko hiri hondakinen bilketa sistema aztertzeko. Aztertu beharreko gaien artean sartuko dira, besteak beste, sistemaren arrazionalizatzea bera eta zerbitzuaren beste ezaugarri batzuk, hala nola, erabiltzaileok ordaintzen dugun prezioa eta kasu batzuetan ezar daitezkeen hobariak. Hori guztia kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiak legealdi honetan abian jarri nahi dituela hondakinak tratatzeko planta batzuk, bai eta planta horiek Donostian izango duten eragina ere.

- Osaera: kide bat udal talde politiko bakoitzeko, boto haztatua emateko eskubidearekin. Kasuan kasu eta presidentek baimenduta, teknikoek zein herri-elkarteek gonbidatu gisa joateko aukera izango dute.

- Iraupena: 9 hilabete

- Bileren araubidea: hilean behin, gutxienez".=====

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagirri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatezak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamabosteko azaroaren hogeita hamarrean.

ALKATEAK O. E. /

V. ° B. ° DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso

- Constituir una Comisión No Permanente con el objetivo de estudiar y analizar el sistema de recogida de residuos urbanos en nuestro municipio, su racionalización, y otras características propias del servicio como, por ejemplo, el precio que los usuarios pagamos por el mismo o las posibles bonificaciones a implementar en determinados supuestos. Todo ello con la vista puesta en la entrada en funcionamiento de diversas plantas de tratamiento de residuos previstas para esta legislatura por la Diputación Foral de Gipuzkoa, y su incidencia en Donostia- San Sebastián.

- Composición: un miembro por cada Grupo político Municipal, con derecho a voto ponderado. En ciertos casos, con autorización de la presidencia, tendrán la posibilidad de asistir como invitados tanto el personal técnico como asociaciones populares".

- Duración: 9 meses.

- Régimen de reuniones: se celebrará, al menos, una con carácter mensual".
=====

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a treinta de noviembre de dos mil quince.

PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO
BATZORDEA

COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS

10. Bateragarritasuna onartzea Ana Remiro Esnoz Musika eta Dantza Eskolako langileari.

“UDALBATZARRARI

DONOSTIAKO UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN DANTZA IRAKASLEA ETA DANTZERTI DANTZA IRAKASLEAREN LANPOSTUAREN BATERAGARRITASUNA

AURREKARIAK

Lehenengoa.- ANA REMIRO ESNOZ andrea (NAN zk.: 34.0912.03-M) Donostiako Udalaren eta Musika Dantza eskolako karrerako funtzionarioa da. Gaur egun bere lanaldia %58,49koa da.

Bigarrena.- 2015eko abuztuaren 28an, ANA REMIRO ESNOZek baimena eskatu du batera egin ahal izateko Eskolan egiten duen lana, eta bigarren jardura bat, lanaldi partzalean eta denbora mugaturako irakasle Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko den DANTZERTI ikastetxean

Hirugarrena.- Urteako hilabetearen egun(e)an eskatutako bateragarritasunari buruzko nahitaezko txosten eskaera ofizioa bidali zen UPV/EHUr (DAGOKIONA JARRI), bigarren lanpostuaren atxikipenari dagokion organo eskuduna delako. UPV/EHUK (DAGOKIONA JARRI) aldeko txostena eman zuen urteko hilabetearen egun(e)an, bertan izena eta abizenak jaunaren/andrearen ordutegia eta ordainsariak jasoz.

Laugarrena.- 2015eko urriaren 28an

10. Autorizar la compatibilidad de la trabajadora de la Escuela de Música y Danza, Ana Remiro Esnoz.

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

COMPATIBILIDAD DE UNA PROFESORA DE DANZA DE LA ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA CON PUESTO DE PROFESORA DE DANZA EN DANTZERTI

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.- Doña ANA REMIRO ESNOZ con DNI nº 34.0912.03-M es funcionaria de carrera del Organismo Municipal “Escuela Municipal de Música y Danza” de Donostia / San Sebastián. Su jornada actual es del 58,49%,

Segundo.- Con fecha 28 de agosto de 2015, Don/Doña ANA REMIRO ESNOZ ha solicitado autorización para compatibilizar su actividad en la Escuela con una segunda actividad como profesora del Centro DANTZERTI del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura

Tercero.- Con fecha 3 de septiembre de 2015 se envió oficio de petición de informe preceptivo a la dirección de personal del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura sobre la compatibilidad solicitada, al ser el órgano competente conforme a la adscripción del segundo puesto. Que la Dirección de personal del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura emitió informe favorable el 6 de octubre de 2015, haciendo constar el horario y las retribuciones de Doña ANA REMIRO ESNOZ.

Cuarto.- El 28 de octubre de 2015 el Gerente

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako kudeatzaileak aldeko txostena egin zuela, Udaletxeko Giza-baliabideko zuzendaritzaren oniritziarekin.

del Organismo Autónomo ha emitido informe favorable con el VºBº de la Dirección de Recursos Humanos del Ayuntamiento

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Lehenengoa.- Kasu honetan aplikatu behar dira: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri-administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunen araubideari buruzkoa; 598/1985 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, aurreko legea garatzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; 193/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen; eta horrekin bat datozen aplikazio orokorreko gainerako arauak.

Primero.- Resultan de aplicación a la presente: La Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca; la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas; el Real Decreto 598/1985, de 30 de abril, que desarrolla la anterior; la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común; y demás normativa de general y concordante aplicación.

Bigarrena.- Langileak Kudeatzeko zuzendariak eskumena du bateragarritasun-espeditueak ebazteko, betiere Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 10. artikuluko 2 j) idatzi-zatian xedatutakoaren arabera.

Segundo.- El Pleno del Ayuntamiento es el órgano competente para resolver los expedientes de compatibilidad, en virtud de lo establecido en la Ley 53/1984

Hirugarrena.- Herri-administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak erregimen bateratu eta homogeneoa ezartzen du, bere eremu subjektiboko langileei aplikatu beharreko bateraezintasun-sistamarako.

Tercero.- En la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, se establece un régimen uniforme y homogéneo respecto al sistema de incompatibilidades aplicable al personal incluido en su ámbito subjetivo.

Lege horren 4. artikuluko lehenengo atalean ondokoa ezartzen da: "bateragarritasuna

El artículo 4 de la mencionada Ley, en su apartado primero, establece que "podrá

onartu ahalko da, beti ere, Lege horren gainontzeko betebeharrak betez gero, irakaskuntza alorrean Unibertsitateko irakasle elkartu lanpostu bat betetzeko, lanaldi partzialekoa baino ardua luzeagokoa ez bada eta denbora mugaturako bada”.

Horrez gain, 598/1985 ED-ko 14. artikulua hurrengo ezartzen du: “abenduarien 26ko 53/1984 Legea edo Errege Dekretu hau lanaldi partzialeko lanpostuez ari den kasu guztietan, asteko hogeita hamar ordu gainditzen ez duen lanaldiaz ari direla ulertu behar da”.

Dena den, onarpenak ez du jarduera nagusiaren betebeharrak eta zereginak betetzea oztopatuko, kasu honetan “IKASTETXEAREN IZENA” ikastetxeko jarduera, hain zuzen ere. Hau da, ez da izango aitzakia aipatu ikastetxera ez joateko, ezta atzerapen, zuhurtzia-gabekeria edo axolagabekeria izateko bere zeregin eta betebeharratan.

Laugarrena.- 53/1984 legearen 7. artikulua bere 1. atalean hurrengo ezartzen du: “jarduera publikoen bateragarritasuna baimentzeko, beharrezko baldintza izango da bi lanpostuetan jasotzen den guztizko kopuruak ez gainditzea Zuzendari Nagusiaren kargurako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako ordainsaria. Horrez gain, kopuru horrek ezin izango du printzipala arduraldi arrunteko erregimenean, gehi jarraian aipatutako ehunekoak, gainditu:

- A taldeko funtzionarioentzat edo maila baliokideko langileentzat, %30.
- B taldeko funtzionarioentzat edo maila baliokideko langileentzat, %35.

autorizarse la compatibilidad, cumplidas las restantes exigencias de esta Ley, para el desempeño de un puesto de trabajo en la esfera docente como Profesor universitario asociado en régimen de dedicación no superior a la de tiempo parcial y con duración determinada”.

Así mismo, el artículo 14 del RD 598/1985 establece que “en todos los puestos en que la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, o este Real Decreto se refieren a puestos de trabajo con jornada de tiempo parcial, se ha de entender por tal aquella que no supere las treinta horas semanales”.

La concesión, sin embargo, no ha de menoscabar el cumplimiento de los deberes y obligaciones derivados de la actividad principal, en este caso en la Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián. Esto es, no servirá de excusa a la asistencia al mencionado centro, ni al atraso, negligencia o descuido en el desempeño de sus deberes y obligaciones.

Cuarto.- El artículo 7 de la Ley 53/1984 establece, en su punto 1, que “será requisito necesario para autorizar la compatibilidad de actividades públicas el que la cantidad total percibida por ambos puestos o actividades no supere la remuneración prevista en los Presupuestos Generales del Estado para el cargo de Director General, ni supere la correspondiente al principal, estimada en régimen de dedicación ordinaria, incrementada en:

- Un 30 por 100, para los funcionarios del grupo A o personal de nivel equivalente.
- Un 35 por 100, para los funcionarios del grupo B o personal de nivel equivalente.

–C taldeko funtzionarioentzat edo maila baliokideko langileentzat, %40.
–D taldeko funtzionarioentzat edo baliokideko langileentzat, %45.
–E taldeko funtzionarioentzat edo baliokideko langileentzat, %50”.

IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak bi lanpostuengatik jasoko duen guztizko kopuruak ez du gainditzen aipatutako artikuluan ezarritako kopurua.

Horretaz gain, artikuluko horren 2. atalaren arabera, “bigarren lanpostuko zerbitzuak ez dira kontuan hartuko ez hirurtekoetarako, ezta eskubide pasiboetarako ere ez, eta azken honen ondorioetarako kotizazioa eten daiteke. Aparteko ordainsariak eta familia izaerako prestazioak soilik lanpostu batengatik jaso daitezke, bere izaera gorabehera”.

Horiek horrela, honako ERABAKI hau hartzea proposatzen diogu Udalbatzari:

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- ANA REMIRO ESNOZ andreak eskatutako bateragarritasuna bigarren jarduera betetzeko EMAN. Bateragarritasun honen baimena iraungiko da onarpen hau emateko dauden inguruabarrak aldatzen bada edo indarrean dagoen araudia urratzen bada. Horren ondorioetarako, ikasturtearen hasiera inguruabarren aldaketatzat hartzen denez, jakinarazten da baimen honen eragina izango dela, gehienez, 2014/2015 ikasturte bukaera arte. Behin ikasturte hau bukatuta bateragarritasunerako baimen berria beharko da.

– Un 40 por 100, para los funcionarios del grupo C o personal de nivel equivalente.
– Un 45 por 100, para los funcionarios del grupo D o personal equivalente.
– Un 50 por 100, para los funcionarios del grupo E o personal equivalente”.

La cantidad total que Doña ANA REMIRO ESNOZ va a recibir por los dos puestos no supera lo establecido en el mencionado artículo.

Así mismo, el punto 2 de dicho artículo establece que “los servicios prestados en el segundo puesto o actividad no se computarán a efectos de trienios ni de derechos pasivos, pudiendo suspenderse la cotización a este último efecto. Las pagas extraordinarias, así como las prestaciones de carácter familiar, solo podrán percibirse por uno de los puestos, cualquiera que sea su naturaleza”.

A la vista de cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente

ACUERDO:

Primero.- CONCEDER a Doña ANA REMIRO ESNOZ la compatibilidad solicitada para realizar la segunda actividad. Esta autorización de compatibilidad caducará en el momento en que se modifiquen las circunstancias de la actual concesión o se vulnere lo dispuesto en la normativa vigente; a tal efecto, y considerándose como cambio de circunstancias el inicio de cada curso académico, se hace preciso indicar que esta autorización durará, como máximo, hasta el final del curso académico 2015/2016. Finalizado este período será necesaria una nueva autorización de compatibilidad.

Donostian, 2015eko azaroaren 10ean

UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN KUDEATZAILEA,
Izpta.: Mikel Mate Ormazabal

UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN LEHENDAKARIORDEA
Izpta.: Miren Azkarate Villar”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, interviene en este punto la señora D^a. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 20 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 20 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 5 – EH BILDU.

GZK. 1. Hiritar Kontsulten Erreklamenduarien espedientearen bidaltzea eta Lege Zuzendaritzari defendatzea agintzen duen ebazpena berrestea.

“Espedientearen bidaltzea eta lege zuzendaritzari eskatzea udalak 2015eko apirilaren 30ean hartutako erabakia aldeztuko. horren bidez, bukaerako onarpena eman zitzaion Hiritar Kontsulta Erreklamenduari, 2015eko maiatzaren 13an 88. zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuari.

E B A Z P E N A

FOD. 1. Ratificación de la resolución de remisión y encargo a la Dirección Jurídica de la defensa del recurso interpuesto contra el Reglamento de Consultas Ciudadanas.

“Remision de expediente y encargo a la dirección jurídica de la defensa del acuerdo municipal de 30 de abril de 2015 por el que se aprobo con carácter definitivo el Reglamento de Consultas Ciudadanas, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 88 de 13 de mayo de 2015.

R E S O L U C I Ó N

Alkateak, 2014ko urriaren 23an honako hau erabaki du:

Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailak *Donostiako Udalari jakinarazpen bat igorri eta administrazio espediente bat bidaltzeko eskatu dio, 330/2015 administrazioarekiko auzi errekurtsio arrunta dela kausa*, Estatuko Administrazioak aurkeztu baitu Donostiako Udalak 2015eko apirilaren 30ean onartutako erabakiaren aurka, hartan Hiritar Kontsulten Erregimenduaren betiko onartu zuen.

1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako eskumena arautzekoak, 48 eta 49. artikuluetan, eta 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 124.I artikuluan xedatzen dutena betez, alkateak, presa dela-eta, honakoa

E B A T Z I D U

1.- Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailari bidaltzea kanabis elkarteak arautzeko udal Ordenantzaren administrazio espedientea.

2.- Udal honetako Lege Zuzendaritzari agintzea errekurritutako administrazio ekintza defenda dezala, eta ahalmena ematea, orobat, prozedurako gorabehera, izapide eta errekurtsio guztietan jarduteko eta, hala behar baldin bada, baita adostasunezko proposamena aurkezteko ere, 29/1998 Legeko 77. artikulua jarritako eran.

3.- Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran aurkeztea ebazpena, berretsi dezan hark.

La Alcaldía, con fecha 23 de octubre de 2015 ha dictado la siguiente resolución:

La Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha dirigido una comunicación a este Ayuntamiento requiriendo la remisión del expediente administrativo con motivo del recurso contencioso-administrativo ordinario 330/2015 interpuesto por la Administración del Estado contra el acuerdo de 30 de abril de 2015 del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, por el que se aprobó con carácter definitivo el Reglamento de Consultas Ciudadanas.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 48 y 49 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa, así como lo dispuesto en el artículo 124.I de la ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen Local, esta Alcaldía, por razones de urgencia

R E S U E L V E

1º.- Remitir a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el expediente administrativo correspondiente al Reglamento de Consultas Ciudadanas.

2º.- Encomendar a la Dirección Jurídica de este Ayuntamiento la defensa del acto administrativo impugnado y facultarle para que siga el procedimiento en todos sus incidentes, trámites y recursos y, en su caso, para formular propuesta transaccional en los supuestos contemplados en el artículo 77 de la Ley 29/1998.

3º.- Elevar la presente resolución a la próxima sesión Plenaria que se celebre, para su

ratificación.

Horiek horrela direla, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123. artikulua agintzen duena aintzakotzat hartu eta Donostiako Udalbatzak

Visto cuanto antecede y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno de este Ayuntamiento

ERABAKI DU

ACUERDA

“Berrestea alkateak 2015eko urriaren 23an hartutako ebazpen bat, erabaki honen azalpen zatian adierazitakoa”.

“Ratificar la resolución de la Alcaldía de 23 de octubre de 2015, cuyo contenido se ha incorporado en la parte expositiva del presente acuerdo”.

Donostia, 2015eko azaroaren 20a

San Sebastián, a 20 de noviembre de 2015

HERRI PARTAIDETZAKO ZERBITZUBURUA / JEFA DEL SERVICIO DE PARTICIPACION CIUDADANA

Izpta./Fdo.: Amaia Agirreolea Gómez

O.E.:/ Vº Bº

AUZOETAKO ETA DESZENTRALIZAZIOKO, ERANTZUNKIDETASUN ZIBIKOKO, BERDINTASUNEN ETA LANKIDETZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA / LA CONCEJALA DELEGADA DE BARRIOS Y DESCENTRALIZACION, CORRESPONSABILIDAD CIVICA, IGUALDAD Y COOPERACION

Izpta./Fdo.: Duñike Agirrezabalaga Ugarte”.

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, interviene en este punto el señor D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
BERRETSIA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RATIFICADO.
POR UNANIMIDAD.

II

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROL
PARTEA**

11. Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Etxebizitzaren Legearen ondorioak direla-eta.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Udal Organoen Araudiko 97. artikulua oinarri, honako INTERPELAZIO ZUZENA aurkezten dio alkateari, Etxebizitzaren Legearen ondorioak direla-eta, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Etxebizitzarenak, dioenez, "Etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko beste eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzekoa...".

Aspaldi ez duela onartutako lege horrek tresna baliagarri bat eskaini nahi du, etxebizitza bat izateko ezintasuna edo zailtasuna eta haren garestitasuna kontuan hartuta, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea arautuz.

Izan ere, lege horrek agindu garrantzitsuak biltzen ditu arazo horri aurre egiteko; etxebizitza hutsa zer den definitzen du; etxebizitza batek, justifikaziorik gabe okupatu gabe badago, bete behar duen funtzio soziala betetzen ez duela xedatzen du;

II

**PARTE DE INFORMACIÓN, IMPULSO Y
CONTROL**

11. Interpelación presentada por el Grupo EH BILDU en relación a las consecuencias de la Ley de vivienda.

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Portavoz del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 97 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente INTERPELACIÓN DIRECTA al Alcalde, para su tratamiento en Pleno, sobre los efectos de la Ley de Vivienda

JUSTIFICACIÓN

Como bien dice la reciente Ley 3/2015, de 18 de Junio, de Vivienda "El derecho a disfrutar de una vivienda constituye una necesidad vital para el ser humano por cuanto condiciona el disfrute de otros derechos esenciales, como tener empleo, ejercer el derecho de sufragio, acceder a las prestaciones y a los servicios públicos,...".

La reciente aprobada Ley de Vivienda trata de proporcionar una herramienta útil, ante la imposibilidad o dificultad para acceder a la vivienda y la carestía de la misma, regulando el "derecho al disfrute de una vivienda digna y adecuada".

En efecto, la citada ley contiene preceptos importantes para hacer frente a esta problemática, da una definición de "vivienda vacía", establece que la situación o estado de desocupación de una vivienda de manera injustificada supone un incumplimiento de la

Administrazioen eta, horien artean, udalen esku-hartzea ahalbidetzen duten legezko tresnak ezartzen ditu, are gehiago, beren funtzio soziala betetzen ez duten etxebizitzak nahitaez desjabetu ditzaten eta hutsik dauden etxebizitzak nahitaez alokairuan jarraz ditzaten onartzen du. Horretaz gain, alokairuko etxebizitzaren lehentasuna finkatzen du, %80k araubide horretakoa izan behar duela aginduz eta, bost urte barru, %100ek.

Hala, bada, kontuan hartuta, batetik, lege hau oso garrantzitsua dela eta aukera eta agindu berriak biltzen dituela eta, bestetik, gobernu taldeak ez duela inolako informaziorik eman legea indarrean sartzearen ondorioz abian jarri behar dituen neurriei buruz, behartuta gaude honako INTERPELAZIO ZUZENA aurkeztera:

1.- Zergatik ez zaie oposizioko taldeei jakinarazi zer neurri abian jarri edo inplementatu nahi dituen gobernuak, Etxebizitzaren Legea onartu eta indarrean sartu eta gero?

2.- Zergatik ez da sortu, ez Udalean ez Etxebizitzaren Enpresa Erakunde Publikoan, udal talde guztiek osatutako lantalderik, lege hori indarrean sartzeko etxebizitza politikan eta, batez ere, Donostian, izango dituen ondorioei helduko dienik?

3.- Zergatik ez da jakinarazi zer ondorio izan ditzakeen lege onartu berriak Udalaren eta Donostiako Etxegintzaren aurrekontuetan?

Donostia, 2015eko azaroaren 9an

función social que debe cumplir, dota de instrumentos legales que facultan la intervención de las distintas Administraciones, entre las que está el Ayuntamiento, permitiéndole incluso la expropiación forzosa de las viviendas por incumplimiento de la función social o el alquiler forzoso de la vivienda deshabitada; y fija la preferencia de la vivienda de alquiler; estableciendo la obligación de que el 80% sea en ese régimen y dentro de 5 años el 100%.

Pues bien, teniendo en cuenta la indudable importancia de esta Ley, las nuevas oportunidades y mandatos que contiene la misma, y la absoluta falta de información por parte del equipo de gobierno de las medidas que piensa implementar como consecuencia de la entrada en vigor de la citada ley, nos vemos en la obligación de presentar la siguiente INTERPELACIÓN DIRECTA

1.- ¿Por qué motivos no se ha dado a conocer a los grupos de la oposición las medidas que piensan poner en marcha o implementar el gobierno, tras la aprobación y entrada en vigor de la Ley de Vivienda?

2.- ¿Por qué motivos no se ha creado, ni en el Ayuntamiento, ni en el seno de la Entidad Pública Empresarial de Vivienda, grupo alguno de trabajo conformado por todos los grupos municipales, donde se aborde las consecuencias que para la política de vivienda tiene la entrada en vigor de la citada Ley, y más aún en Donostia?

3.- ¿Por qué motivos no se ha dado a conocer los efectos presupuestarios que puede tener la misma en los Presupuestos Municipales y de Donostiako Etxegintza?

En Donostia, a 9 de Noviembre de 2015.

Izpta.: Amaia Almirall López de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.

Fdo.: Amaia Almirall López de Luzuriaga
Portavoz del Grupo Municipal de EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoa jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

III

MOZIOAK

III.1

MOZIO ARRUNTAK

III.1.12. Mozio arrunta bateratua, EAJ-PNV, EH BILDU eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua, Mikel Zabalza kasuaren gainekoa.

“Miren Azkarate Villar, Amaia Almirall López de Luzuriaga eta Amaia Martin Garin, EAJ-PNV, EH Bildu eta Irabazi Donostia Udal taldeen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten dute, Mikel Zabalza kasuaren gainean, “Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimenak” sustaturiko aldakarrikapen eta eskaera dela-eta.

Aurrekariak:

III

MOCIONES

III.1

MOCIONES ORDINARIAS

III.1.12. Moción ordinaria conjunta presentada por los grupos EAJ-PNV, EH BILDU e IRABAZI DONOSTIA en relación al caso Mikel Zabalza.

Miren Azkarate Villar, Amaia Almirall López de Luzuriaga y Amaia Martin Garin, portavoces de los grupos municipales EAJ-PNV, EH Bildu e Irabazi Donostia, al amparo del artículo 98 del ROP, presentan la siguiente moción ordinaria sobre el caso Mikel Zabalza, fundamentada en la iniciativa impulsada por “Mikel zabalza Herri Ekimena”.

Antecedentes:

1985eko azaroaren 26rako gauerdian, Donostiako Tranbia Konpainiako langile zen Mikel Zabalza orbaizetarra atxilotu zuen Guardia Zibilak, Altzako bere etxebizitzan, bere bikotekidearekin, lehengusuarekin eta lagunarekin batera.

Polizia operazioaren osteko orduetan zabaldu zen Mikel Zabalzak ihes egin zuela, ustez. Hurrengo egunetan ez zen batere informazio ofizialik zabaldu eta, abenduaren 15ean, bere gorpua agertu zen Bidasoa ibaian, murgilduta.

Mikelen atxiloketa eta torturak jasan izana salatu zituzten senideek eta berarekin batera atxilotutakoek, eta bertsio ofiziala ukatu zuten. Kargurik gabe geratu ziren guztiak.

Mikel Zabalzaren desagerepenaren larritasunak eraginda, 1985eko abenduaren 6an, Donostiako udal batzarrak mozio bat onartu zuen *“Donostiako Tranbia Konpainiako langile eta Donostiako bizilaguna den Mikel Zabalza jauna non dagoen argitzeko ikerketan eta gertaeren argipenean laguntzeko konpromisoa hartuz, eta horretarako, kasua argitzeko irekita dauden diligentzietan herri ekimen gisa agertzeko konpromisoa hartuz, Donostiako Instrukzio Epaitegiko 1. aretoan”*.

Bide beretik, Mikel Zabalzaren gorpua agertu ostean, Nafarroako Legebiltzarrak irmo eskatu zuen, Bozeramaileen Mahaiak eta Batzarrak erabateko adostasunez onartutako adierazpen instituzional baten bidez, Zabalza kasua erabat argitzea, eta heriotza horrekin loturarik izan zezaketen pertsonen gainean ardura penal eta politikoak ezartzea.

Mikel Zabalza, orbaizetarra, residente en Altza, y trabajador municipal de la Compañía del Tranvía de Donostia, fue detenido junto a su compañera, un primo y un amigo, en el marco de una operación llevada a cabo por la Guardia Civil en la madrugada del 26 de noviembre de 1985.

En las horas y días siguientes a la operación policial trascendió la versión de una supuesta “fuga” de Mikel Zabalza, seguida de una ausencia absoluta de información oficial, y el posterior hallazgo de su cuerpo en aguas del Bidasoa el 15 de diciembre.

Tanto la familia como quienes fueron detenidos con él, denunciaron su detención y torturas, negando la versión oficial difundida. Todos quedaron libres sin cargos.

Ante la gravedad de la desaparición de Mikel Zabalza, el 6 de Diciembre de 1985 el Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián había aprobado una moción por la que *“se compromete a coadyuvar al esclarecimiento de los hechos y a la investigación del paradero de D. Mikel Zabalza, trabajador de la Compañía del Tranvía, S.A. de esta Ciudad, y ciudadano de Donostia, personándose en el Juzgado de Instrucción nº1 de Donostia y en las diligencias abiertas en el mismo a tal efecto, mediante el ejercicio de la acción popular”*.

En similar sentido, y tras la aparición del cuerpo sin vida de Mikel Zabalza, el Parlamento de Navarra, en una declaración institucional aprobada por unanimidad por la Mesa y Junta de Portavoces, exigió el total esclarecimiento del caso Zabalza, requiriendo *“que se determinen las responsabilidades penales y políticas, si las hubiere, de las personas relacionadas con esta muerte”*.

2002ko maiatzaren 28an, EUDELen mozio bat onartu zuen Donostiako udal batzarrak ondokoa zehaztuz: *“eraildako pertsona bakoitzak eta, oro har, biolentzia pairatu dutenek merezi dituzte erakundeon eta herritarren oroitzua eta elkartasun aktiboak”*.

2005eko azaroaren 29an, Mikel Zabalza desagertu eta hilik agertu zeneko 20. urteurrenean, Eusko Jaurlaritzak adierazpen instituzional bat onartu zuen, nabarmenduz memoria historikoa berreskuratzeak eta erailak izan diren pertsonak ez ahazteak duten garrantzia, bereziki, krimena argitu gabe jarraitzen duen kasuetan. Mozioan, Jaurlaritzak azpimarratu zuen egia ezagutzeko beharra, eta gertatutakoa argitzea eta Mikel Zabalza terrorismoaren biktima gisa ezagutzeko eskatu zituen.

Berriki, eta 2015 honen barruan, *“Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen udal erretratuak”* -Eusko Jaurlaritzako *“Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia”*k sustatutako ekimenak-, beren *“3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak”* ataleko 11. fitxan sailkatzen du Mikel Zabalzaren kasua .

El 28 de mayo de 2002, se aprobó por el Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián una Moción de EUDEL en la que se recogía que *“cada una de las personas asesinadas, así como todos los afectados por la violencia, merecen el recuerdo y la solidaridad activa de la ciudadanía y las instituciones”*.

El 29 de noviembre de 2005, con motivo del 20 aniversario de la desaparición y muerte de Mikel Zabalza, el Gobierno Vasco aprobó una declaración institucional en la que destacaba la importancia de recuperar la memoria histórica y no dejar en el olvido a las personas que han sido asesinadas y cuyo crimen sigue sin resolverse. Se subrayaba la necesidad de conocer la verdad, pedía se aclarase lo ocurrido, y se considerase a Mikel Zabalza víctima del Terrorismo.

Más recientemente, y dentro de este mismo 2015, la iniciativa *“Retratos municipales de las vulneraciones del derecho a la vida en el caso vasco”* promovida por la *“Secretaría General para la Paz y la Convivencia”* del Gobierno Vasco, registra en su ficha num.11 el caso de Mikel Zabalza dentro del epígrafe *“3. Vulneraciones del derecho a la vida causadas por Fuerzas de Seguridad”*.

Por todo ello, los grupos firmantes presentan la siguiente

MOZIOA:

1. Donostiako bizilaguna eta Donostiako Tranbia Konpainiako langile zen Mikel Zabalza atxilotu zuteneko eta hilik agertu zeneko 30. urteurrena den honetan, Donostiako udalak bere konpromisoa berresten du, 1985eko

MOCION:

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián, al cumplirse 30 años de la detención y muerte de Mikel Zabalza, ciudadano de Donostia / San Sebastián y trabajador de la Compañía del Tranvía de San

abenduaren 6an udalak onartutako mozioan jasotzen denaren haritik, bere heriotza eragin zuten gertaeren argipenean laguntzeko, eta Egia eta Justizia ezartzen, bere memoria sustatzen, biktima gisa onartua izan dadin eragiten eta Mikel Zabalzari eta bere senideei dagokien erreparazioa eskaintzen parte aktibo izateko, beste erakundeekin, dBuseko langileekin eta Herri Ekimenekin batera, dauden edota sortu beharko lirakekeen Giza Eskubideetako eremuko organo egokietan parte hartuz.

2. Donostiako udalak dei egiten die donostiarrei parte har dezaten dBuseko langileek eta mozio honen sustatzaile den Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimenak antolatutako oroimen eta elkartasun ekimenetan.

Donostia, 2015eko azaroaren 6a

Amaia Martin
Portavoz Irabazi Donostia

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Portavoz del grupo municipal EH Bildu

Miren Azkarate Villar
EAJ-PNV Taldearen Bozeramailea”

Sebastián, reafirma su compromiso -recogido en la moción aprobada por el Ayuntamiento Pleno el 6 de Diciembre de 1985- de coadyuvar al esclarecimiento de los hechos que llevaron a su muerte, así como a ser agente activo en la búsqueda de la Verdad y la Justicia, la promoción de su recuerdo, su reconocimiento como víctima, y la reparación debidas tanto a Mikel Zabalza como a su familia, en colaboración con otras instituciones, representantes de las/os trabajadoras/es de dBus, e iniciativas populares, participando en los órganos pertinentes, existentes ó a crearse, del ámbito de los Derechos Humanos.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián hace un llamamiento expreso a la ciudadanía a participar en los actos de recuerdo y solidaridad organizados por las/os trabajadoras/es de dBus y la plataforma “Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimena”, promotora de esta moción.

Donostia, 6 de noviembre de 2015

Amaia Martin
Portavoz Irabazi Donostia

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Portavoz del grupo municipal EH Bildu

Miren Azkarate Villar
EAJ-PNV Taldearen Bozeramailea”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Alkate-Udalburuak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D^a. Amaia Martín Garín, D. Ernesto Gasco Gonzalo, D^a. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Alcalde-Presidente y D^a. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

**ALDEKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ-PNV, (6) EH
BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.

ABSTENTZIOAK: 7 – PSE-EE.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

**VOTOS A FAVOR: 16 – (8) EAJ-PNV, (6) EH
BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.

ABSTENCIONES: 7 – PSE-EE.

13. mozio arrunta eta 15. kontrol mozia batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente la moción ordinaria nº 13 y la moción de control nº 15.

**III.1.13. Mozio arrunta, PP taldeak
aurkeztua, Donostiako turismo
apartamentuak direla eta.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udaltzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo MOZIO ARRUNTA aurkezten du, Donostiako turismo apartamentuak direla eta, Udaltzatan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA:

Azken urteotan neurririk gabe handitzen ari da partikularren etxebizitzak turismo apartamentutzat erabiltzea. Gainezka egiteraino handitu den arazoa da, eragin handikoa delako eta kontrolrik gabe dagoelako.

Ez dugu datu zehatzik, errentariak gehienetan ez baitute jardura erregistratzen. Udal honek badu araudi bat jardura horiei buruz, Hiria Antolatze Plan Orokorrean jasoa. Hor

**III.1.13. Moción ordinaria presentada por el
